



Arabako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Álava

Mahastizaintza eta Enologia zerbitzua  
Servicio de Viticultura y Enología

## **ARABAKO ERRIOXARI ETA ARABAKO TXAKOLINARI BURUZKO 2019-2020 MAHASTI KANPAINAREN AZKEN TXOSTENA**

2020ko kanpaina hasi zen, eta mahastizaintzarekin zerikusirik ez duten arrazoiak tarteko, historiako ezohikoena bihurtu da. Azaroa oso euritsua eta hotza izan da, eta elurte goiztiarrak izan dira gailurretan. Nola ia 150 litro euro bota zuen metro koadroko, azaroa azken 50 urteetako euritsuena izan zen.

Negua lehorra izan zen, garaiari zegokionaren herena baino balio txikiagoekin eta tenperatura altuekin, eta azaroaren erdialdean, abenduaren zatirik handienean eta otsailen, erregistro altu ezohikoak egon ziren.

Negu meteorologikoa egun gutxi batzuetara mugatu zen urtearen amaieratik urtarrilaren bigarren hamarraldira arte, non hotza nabaritu baitzen.

Martxoa euriarekin hasi zen, eta negua agertzen ari zela zirudienean, berehala igo ziren tenperaturak, eta negukoak baino udaberrikoagoak izan ziren. Martxoko bigarren astean hasi ziren ernamuinak puzten, une horretan 15-20 egun inguru aurreratuta, urte arrunt baten aldean.

Martxoaren 15etik aurrera eguraldia goitik behera aldatu zen; izan ere, tenperaturak behera egin zuten, eta euri eta elur prezipitazioak izan ziren; hartara, mahastia gelditu eta bere egoera fenologikoari begiratuta bere onera etorri zen. Hala eta guztiz ere, neguko eguraldiaren balantzea lehorra eta beroa izan zen.

Apirila udaberriko ohikoa izan zen euriari dagokionez, baina tenperatura oso beroak eta zenbait egun hotzak izan ziren hilabete hasieran eta amaieran. Apirilean, zeina hilabete kalteberagoa baita mahastiarentzat izozteei dagokienez, tenperaturak ez ziren jaitsi zero gradutik behera.

Maiatzean eta ekainaren hasieran, etengabe izan ziren ekaitzak, bai eta prezipitazio ugari eta txingorra (maiatzak 15 eta 16) ere, eta Errioxa Garaiko herrietan kalte handiak izan ziren. Bastidan, harri jasaren eragin handiena izan duen Arabako Errioxako herrian, harriak zuzeneko eta zeharkako kalte batzuk eragin zituen, ondoren mamitzea asaldatu baitzuen.

Udaberrian euriteak hain ugariak izan ziren, non ohiko kopuruak ia bikoiztu egin baitziren. Tenperaturak, era berean, anormalki altuak izan ziren. Udaberrian behin eta berriro izan ziren ekaitzek ekarri zuten ur ugaritasunak eta tenperatura altuek, mahastietako kimuak azkar haztea ahalbidetu zuten, eta maiatzaren hasieran jada urte zaila izango zela iragarri zen gaixotasun fungikoei dagokienez.

Ekaina maiatza bezala hasi da, giro asaldatuarekin, tenperatura oso altuekin eta ur ugariko ekaitzekin; hau da, mildiua garatzeko baldintza oso egokiekin, eta tratamenduak egiteko zailtasunekin, lurraren egoeraren ondorioz. Ekainaren hasieran, batez beste, hiru tratamendu egin ziren mildiuren aurka, eta, horren ondorioz, eraso hori goiztiarrena eta gogorrena izan zen urte askoan. Hasi dira mahastia ikusten, gehienak Ebroko erriberako aurkintza sentikorrenetan: Bastida-Gatzaga, Mainueta, Eltziego ..., baina baita iparralderago dauden beste eremu batzuetan ere: Navaridas, Eskuernaga, Guardia..., kalte esanguratsuak eta kontrol zailtasunak dituztela. Eta gutxi balitz, oidioaren mehatxua dago, eta horrek zaintza zorrotza egitera behartzen du.

Mahastia laster hasi zen loratzen, ekainaren hasieran, eta bat egin zuten mildiuk mahats-lukuari eragiten dion arrisku eta afekzio faseak eta loratzea eta mamitzeak. Ekainaren 15ean, txingor-ekaitz gogor batek gogor jo zuen Arabako Errioxan, eta bi fokutan izan zuen eragina: Navaridas-Eskuernaga-Samaniegoren eta inguruetan, eta Bastidan, azken horretan intentsitate txikiagoarekin. Azkenik, mahats bilketan, Navaridasko,

Eskuernagako, Samaniegoko edo Lezako mahastietan etekina murriztu zela nabaritu zen, harriaren eta mildiuren eragin bikoitzagatik. Ekainaren 25ean beste txingor ekaitz bat izan zen, eta kalteak eragin zituen Guardia, Lapuebla eta Eltziegoko zenbait parajetako mahastietan.

Zorionez, eguraldiak atsedean hartu zuen loraldian eta mamiaren lehen egunetan, eta egun freskoak eta euriteak tartekatu ziren. Finketara sartzeko eta mildiurik izandako aurrerapena aldi baterako geldiarazteko aprobeixatu zen. Onddoak egun horietan lukuan eragin zituen kalteak handiak ziren jada. Loratze-mamitze fasean baldintza zurrumbilotsuak izateak fruituaren lore galtzea eragiten du, eta horrek eragin negatiboa du ale bideragarrien kopuruan eta, ondoren, etekinean.

Mamitik aurrera, ia "tropikala" izen zen meteorologiak mildiurik garatzeko baldintza ezin hobekak eman zituen: beroa, ur ugari eta baita harria ere. Mahastizainak tratamenduak ematen ibili ziren etengabe, astebete baino gutxiagoko tartekak ere utziz tratamenduen artean, eta produktu oso garesti eta bereziekin gainera. Horrez gain, mantentze lanak ere egin zituzten, inoiz baino gehiagotan, hostoak kentzeko, aireztatzea hobetzeko, eta fitosanitarioak mahats-mordora heltzeko. Mahasti ekologikoa izan ziren, alde handiarekin, kaltetuena, ez baitute mahastizaintza konbentzionalaren aukera fitosanitariorik.

Uztailaren amaieran izan zen kolore aldaketa, ohi baino astebete-hamar egun lehenago; une horretan, mildiurik eta oidioa kontrolatuz jo ziren. Maiatzeko eta ekaineko harri jasek eta mildiuren eraso bortitzak aparteko gastuak eta uzta murrizketa ekarri zituzten, mahasti batzuetan nabarmena.

Uztaileko azken astean eta abuztuko lehen hamabostaldian ekaitzak izan ziren maiz, muturreko beroarekin batera, eta euri egin zuen eskualde osoan era ezberdinean banatuta, baita txingorra ere, Bastidan (uztailaren 30ean), Navaridasen, Lezan eta Paganos-Guardian (abuztuaren 11n) edo Binaperin-Lantziegon eta Kripanen (abuztuaren 12an). Hala eta guztiz ere, abuztuaren erdialdean, oro har, mahastiak aurreikuspen onak zituen heltzeari dagokionez; izan ere, mildiuren eragin handieneko eremuetan, mahats mordo solte eta luzatuak izan zituzten eta neurritzko ekoizpenak izan zituzten (gaixotasunaren ondorio positiboak), eta, mildiurik eragin handirik izan ez zuen ekialdeko eremuan, ekoizpen orekatuak. Abuztu bukaera eta irailaren hasieran, eguneko tenperatura balio normaletan mantendu zen; egun batzuk hotzak izan ziren garai horretarako. Gaur freskoak izateari, eguneko eta gaueko tenperaturaren arteko aldeari, ur nahikoa izateari eta argitasun handiari esker, kolore aldaketaren amaieratzat jotzen den aldian, konposatu fenoliken bilakaera oso ona izan zen; heltze fenomenoak moteldu zen eta, gainera, mahastiak berdintzen lagundu zuen.

Heltzearen azken egunetan, eguraldiak gau freskoekin eta egun argitsuarekin lagundu zuen, tenperatura handiegirik gabe, eta, horri esker, heltze prozesua ezin hobeto amaitu zen ziklo osoan, botrytis zantzurik gabe. Irailaren erdialdetik aurrera soilik, zaparradak bota zituen egun batzuetan, eta horrek mantsotu egin zuen mahats bilketa, baina ez zuen ondorio kaltegarrikerik eragin mahatsaren kalitatean. Bildu zen mahatsak osasun aparta zuen. Bilketa horretako mahatsak errendimendu ertainak, mahats ale solteak eta mahats mordo luzeak izan zituen, alegia, lore galtzearen eta mildiuren albo-efektuak, baina, kasu honetan, kalitateko positiboak.

Mahats bilketa horretan ez zen inolako eragozpenik egon nekazaritzaren ikuspuntutik. Azkenean, anormaltasun bakarra pandemiaren ondoriozkoa izan da: neurri higieniko-sanitarioak areagotzea, COVID-19a ez hedatzeko, mahatsaren prezioen zalaparta eta mahats biltzaile mekanikoen presentzia handiagoa. Mahats bilketa azkarra izan zen, hilabete eskasekoa, irailaren erdialdetik (mahats bilketa orokortzen hasi zen) urriaren 12ra arte (orduan, mahats-mordoen bat baino ez zen geratzen lursail isolatuetan).

Kanpaina amaieran intsektuek arazo larri gehiegirik ekarri ez bazituzten ere (trips, eltxo berde eta sitsen eraso batzuk), gaixotasun fungikoen ondorioz, mildiurik gaixotasunaren ondorioz zehazki, mahastiak aspaldian geratzen ez zen egoera batean geratu ziren. Horrela, COVID-19arengatik jada bereziki zaila bazen, urtea are gehiago zaildu zen, eta mahastizainek aparteko ahalegina egin behar izan zuten laborearen osasuntsu mantentzeko borrokatuz, eta horrek galera handiagoak eragotzi zituen.

Errendimenduei dagokienez, Kontseilu Arautzailearen datuen arabera, Arabako Errioxan upeltegietan 92,6 milioi kilo mahats sartu ziren, 84,2 beltz eta 8,4 kilo zuri. Zifra horiek 2019ko aurreko uztakoak baino pixka bat handiagoak dira, laburra izan baitzen, eta kanpaina honetarako babespeko gehieneko errendimenduei doituak, stock kualitatiboa barne. Kanpainako arauari esker, 2020an upeltegian sartu ahal izan da Jatortze

Deituraren arauk ezarritakoaren % 90eko errendimendua, hektareako 5.850 kilogramo beltzarentzat eta 8.100 kilo zurientzat, eta % 10erainoko stocka lortu dute mahastizain gehienek, harri jasek gehien kaltetu dituzten eremuetakoek izan ezik.

Gaur, elaborazio prozesu betean, muztioek eta lehen ardoek parametro analitiko egokiak erregistratzen dituzte (gradua, pH-a, kolorea, taninoak, etab.). Dastatutako lagin gehienek, batez ere mahats-bilketa goiztiarragokoek, oso ezaugarri interesgarriak dituzte, sudurrean zein ahoan fruta asko nabarmentzen da, eta ezaugarri desberdinen artean oreka dago. Horrek denak 2020ko uzta kalitate handikoa izango dela iragartzen digu, bai beltzetan, bai zurietan. ...

## ARABAKO TXAKOLINA

Arabako Txakolinaren gaur egungo egoera

Arabako Txakolinaren eremuan, negua, Arabako Errioxan bezala, lehorra eta epela izan zen, eta udaberrian ere tenperatura altuak egon ziren, izotz goiztiarrik gabe eta egun askotan hegoaldeko haizea ibili zelarik. Errioxan ez bezala, Aiaraldean, udaberrian prezipitazio gutxi izan zen, eta, beraz, ia ez zen egon mildiu goiztiarraren eraginik.

Loraldia, Arabako Errioxan bezala, urte arrunt baten aldean 15 egun aurreratu zen, eta ia ekainaren erdialdean amaituta zegoen. Mahastiak loraldi oso osasuntsuaren fasea gainditu zuen, egun freskoekin eta muturreko fenomeno meteorologikorik gabe, eta, horrek, behar bezala mamitzea ekarri zuen. Uztaila lehorra izan zen Aiaraldean, eta, beraz, mahastien osasuna mantendu zen, aparteko arazorik gabe.

Uztailaren amaieran edo abuztuaren hasieran iritsi zen kolore aldaketa Aiaraldera, ohi baino astebate lehenago, gutxi gorabehera. Abuztua nahasia izan zen eguraldiari dagokionez Arabako txakolinaren eremuan, baina ia ez zen prezipitaziorik egon; beraz, mahastiak, osasun bikaina izanik, prezipitazio eskasia nabaritzen hasi zen udan. Zorionez, eurite ekaitzak eta prezipitazio txikiak abuztu amaieran iritsi ziren, eta horri esker, ontze zikloa amaitu eta alea handitu egin zen.

Arabako Txakolinaren eremuko mahats bilketa ohi baino lehenago hasi zen, irailaren erdia baino pixka bat beranduago, eta baldintza hobeezinetan. Behin eta berriz egin zuen euria, eta hainbat aldiz eten zuen prozesua. Beraz, bilketa urriaren 20ra arte luzatu zen, eta mahats bilketaren iraupen normala bikoiztu egin zen Arabako Txakolinaren eremuan.

2020ko uztak kalitate bikaina izan du, eta 700.000 kg mahats baino gehiago izan da, eta jatorri deiturak kopuru errekorra izan du etekinetan, 2019ko uzta urria (laburra) baino askoz handiagoa. Mahats bilketa berankorrenek muztioen azukre edukia mugatu zuten, eroritako euriaren eraginez; aldiz, errendimenduak nabarmen handitu ziren, eta mahats osasuntsua eta kalitatezkoa sartu zen upeltegietan.

Hala eta guztiz ere, mahastizaintzaren ikuspegitik 2020ko uztaren ebaluazioa oso ona izan da, izurriteen eta gaixotasunen eragin txikiarekin, eta meteorologia dela-eta, uzta ugaria eta kalitate handikoa lortu da azkenean.

Arabako Txakolina jatorri-deiturako ardoak -orain hartzitzen ari dira- gradu altukoak izango dira mahatsa goiz bada. Gainerako ardoak, berriz, aromatikoak izango dira eta gradu egokia eta behar besteko garratzasuna izango dute. Faktore horiei guztiei esker, azken urteotako kalitate ibilbide hobeezinarekin jarraitu ahal izango da.

Elementu negatibo gisa, pandemiak oso eragin larria izan du txakolin ardoaren salmentan, tokiko merkatura eta, bereziki tabernetara eta jatetxeetara bideratzen den ekoizpenaren ehuneko handiagatik. Txakolin upeltegien epe laburreko etorkizunari buruzko ziurgabetasuna Errioxan baino handiagoa da; izan ere, Errioxan ardo gehienak onduak eta etxeetan kontsumituak dira, eta haien esportazioak sendoagoak dira txakolinarenak baino.

Guardia, 2020ko urriaren 29a.

Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzua. Nekazaritza Saila